

Misoginia zer den

Gogoratzen dut orain zenbait urte, Durangoko Azokako Aretoan, idazle batzuei galdetu zietela ea zergatik idazten duten eta, beste arrazoi batzuen artean, mahaian zeuden laurak erantzun zuten «maitatuak izateko». Entzule zen honek esan zien nabarmena zela laurak gizonezkoak zirela, emakume idazle bati behin ere ez baitzaio burutik pasatu horrelako erantzunik. Emakumeek baitakite eremu pribatutik publikora pasatzeko hautua egiten dutenean errazago bilduko dutela inguruko en errefusa, mesfidantza edo errezeloa maitasuna baino.

Ekainaren 30ean Arantxa Urretabizkaiari *Berria*-n (Tartea gehigarrian) egin zioten elkarrizketa batean berriz baieztatu nuen gutariko batzuek aspaldidanik dakiguna: idaztea, emakumeentzat, zeregin ia klandestino da, bizio pribatua, norberaren inguruan zalaparta handirik atera gabe burutu beharrekoa. Etxean jakin dakiten arren, ez jakitearena egiten dute («tratatzen naute idazle ez banintz bezala», zioen berak), ez dute haren idazkirik irakurtzen, ez dute kritikarik segitzen, ez dira liburuen aurkezpenetara joaten eta, etxeko dinamika gehiegi distortsionatzen ez duen neurrian, kontsentitu egiten da. Agian ez dago aurkako diskurtsorik, ez dago debeku espliziturik, baina «kris-talezko sabaia» modu fisikoan nozitzen du emakume idazleak, eta argi du, une oro, mugak non dituen.

Lehen uste nuen antigoaleko kontuak zirela hauek guztiak, edo belaunaldi batzuen zerga historikoak. Gaur egun, idazle gazteagoekin mintzatu ondoren konturatu naiz hamar eta hamabost urte gutxiago dutenek ere sabaia bera «usaintzen» dutela beren buruen gainean.

Misoginiak baditu hamaika aurpegi

Misoginia sotila da, ikusezina, psikologikoagoa fisikoa baino, eta, kasu guztietan, ankerra. Misoginiak, gainera,

(borreroak bezala) baditu hamaika aurpegi. Aipatu elkarriketan Urretabizkaiak dio Lur taldearen inguruan hasi zenean,

nire harridurarako serio hartu ninduten beti... baina gero makina batek ez nau hala hartu. Badira nik baino 40 urte gutxiago duten idazleak nirekin paternalistak direnak.

Nola edo hala, emakume idazleari ikusarazi egiten zaio ez dela taldekidea, bera ez dela koadrila berekoa.

Urretabizkaiak berak aipatzen du nola erakutsi zioten AEBetan argitaratzekoa zen testua, non beraren belaunaldiaz hitz egiten zen. Sarasola, Saizarbitoria eta Lertxundi azaltzen ziren aipatu artikuluan. Eta puntu eta bereiz baten ondoren, ondorengoa: «Emakumeen artean bereizi behar da Arantxa Urretabizkaia...». Beraren galdera (eta nirea) hauxe zen: «kontxo, belaunaldi horretakoa naiz edo ez naiz? Eta belaunaldikoa banaiz, emakume izateak ez nau horretatik baztertzen, ezta?».

Galdera bera egin dezakete «trolepeko belaunaldia» deitua izen den barruan dauden emakume idazle gazteagoek. *Putz* aldizkariak (desagertu aurretik) belaunaldi horren irudi grafikoa eskaini zuenean, txirrindulari talde biluzia eta erakargarria agertu zuen, baina talde horretan ez zegoen joanesomarribarik. Ezin. Agian ez da kasualitate, Inma, ideia hau harrikoa egiten ari nintzen bitartean bururatu izana. Agian emakume batek idazle izatea erabakitzen duenean jakin behar du, aldez aurretik, arlo publikoan aritzeak baduela bere ordaina, eta beti izango dela adin txikikoa, edozein adinekin bada ere, edozein lan egiten badu ere. Izenaz deitua izango da, eta ez deituraz, umeei d e itzen zaien modu berean; heldugabea dela esango dio editorrak, liburuaren tituluaz zalantza duenean; bere lanari buruz idatzitako kritika ez du bilatuko gainontzeko idazleen lanari eskaintzen zaion atalaren barruan, baizik eta, beti ere, aparteko kapitulu batean, «bera bezalakoak» direnei buruz hitz egiten den kapituluan alegia, zeren emakume izate hutsak berdindu egiten baititu emakume-idazle guztiak, axola gabe zertaz, nola, non eta zenbat kaltetarekin idazten duten.

Klandestinoa da, oraindik orain, emakumeek idatzitako literatura, etxean klandestinoa, eta klandestinoa eremu publikoan. Eta ikusezina izatetik ikusia izatera pasatzen denean, halabeharrez bere burua bihurtu beharko du aditu akaso beraren espezialitatea ez den gai batez: emakumea eta literatura. Uneren batean konturatuko da ordurako ezezaguna zitzaion ikerketa-lan batean sakondu eta pentsatu beharko duela, beraren izate soilagatik, jaiotiko gaitza bailitzen. Berak erabaki edo erabaki gabe, askotan aurrekusi beharko du zer esan eta nolako erantzuna eman galdera luzatzen diotenean eta, denboraren poderioz, jakituna izango da gaiaz: «emakumea eta literatura», haatik, beraren espezialitatea XVII. mendeko koplener metrika baldin bada ere.

Enfin, patua. Denbora falta da, denbora luzea, egunen batean emakume batek «maitatua izateko» idazten duela erantzungo duen arte. Oraingoz konformatu beharko da hurbilenekoek ama, bikotekide, adiskide eta alaba gisa maita dezaten, gehiegi kontuan hartu gabe hori guztia izateaz gain IDAZLE ere badela, hizki larriekin.

Imanol Lartzabalen heriotza

Denbora laburrean euskalgintzak heriotza ezagutu du hurbiletik, modu mingarrian ezagutu ere. Andolin Eguzkitza, Manex Goienetxe, Agustin Zubikarai eta Imanol Lartzabal. Guztien biografiak aztertuz gero, herri honen gaitz errekurrenteak azalarazten dira, nahi gabe bada ere: hizkuntzaren ahultasunari eskainitako bizitzaren paradigma da Eguzkitzarena, herri batek zenbat hizkuntzalari sortu, eta hizkuntzari zenbat ahalegin eskaini behar izan zaion erakutsiz. Goienetxeren bizitza, ordea, herri honek beraren historia propioa idazteko sentitu duen beharriaren apologia dugu, gutaz mintza daitezen baino, gu mintza gaitzen gure buruaz. Zubikaraik, bestalde, sinbolizatu egiten du herri minorizatuek komunikabideak sortzeko eta beraren hizkuntzaz adierazteko izan dituzten animalia-ko oztopoak, bai debeku politikoengatik, bai eta

hizkuntzaren fragmentazioak sorturiko eragozpenengatik ere.

Lartzabalek, azkenik, adierazten digu estatuen inposaketa politikoak nolako lubakiak sortu dituen gure artean, une batean alde batean lerrokatuz, ondorengo unean lubakiaren beste aldean lekua bilatuz. Lau biografiak herri baten tragediaren adierazle argiak dira, eta zaila da imajinatzea nolako biografiak izango zituzten kanpotiko presio horiek pairatu behar izan ez bazituzten.

Deigarria suertatu zait Imanolen heriotza izan ondoren bi artikulutan irakurritakoa, lehen begiradan kontrajarririk baitira bi iritziak. Felipe Juaristik (*Beria*, ekainak 27) zioen Imanolengan gehien miresten zuena haren askatasuna zela, askatasun gogoia alegia:

Imanolek bere bizitza honetan nahi duena egin izan du edo, behintzat, nahi duena egiten saiatu da, eta ez da gutxi, gure gizarte hau den bezala izanda.

Joxemari Iturralde, aldiz (*Gara*, uztailak 17), alde-rantzizkoa zioen:

nahi gabe, berak hala nahi gabe gertatu zaizkio Imanol kantariari hainbeste gauza bere bizitza motzean. Nahi gabe hil baita hain gazte, hori segurua da; nahi gabe hil baita Euskal Herritik urrun, berak nahi gabe urrunarazi baitzuten hemengo zenbaitzuek eta horrela hiltzea, desertuan bezala eta halako herrimin handi eta saminez, benetan penagarria da.

Harrigarriena da itxuraz kontrajarriak diren iritziak, ez direla aurkakoak. Klabea, agian, Juaristiren artikulua ematen du: «arrazoimenaz bainoago bihotzaz jokatzeko baitzuen, eta, jakina denez, inork ez daki zer ahal duen bihotz batek».

Bihotzaz jokatzeko gero erraza da leku batean bestean bezain sutsu egotea. Sentipenak nagusiki esperientzia pertsonaletan oinarritzen badira, subjektibotasun gehiegizkoak eta azterketa ezak eraman dezakete jopuntua erratzera. Honela, azterketarako irizpidea ez bada norberarengandik kanpo kokatzen, injustizia txikiak estal dezake injustizia handiagoa.

«Literatura eta iraultza»

Lerro hauek idazten ari naizen honetan iragarrita dago Txillardegiri udazkenean egin behar zaion omenaldia. Antolatzaileen planteamendua ausarta da: garai batean literaturgintzaren baitan izandako eztabaida berpiztu nahi dute eta berriz ere «literatura eta iraultzaz» aritu, garaiko testuak berreskuratu eta gaurkoaren argitan berriro ere eztabaidatu.

Bihotzaz jokatzear edo ez jokatzear ari bagara, hain zuzen ere Txillardegiri egokitzen zaio bihozkadaka jokatzearren soslaia. Bihotzak agindu du beraren erabaki askotan eta bihotzabaltasun horrek erakarri dizkio kritikak alde batetik eta bestetik, baita etxetik ere. Eta hori izaten da mingarriena: etxean jasotako egurra.

«Literatura eta iraultza» ez da inoiz gai bera, titulu bera jartzen bazaio ere. Literatura beti da bere garaia alaba, eta iraultzaren kontzeptua ere aldakorra da garai bakoitzeko talaiatik ikusita. Ziur naiz udazkenean ez ditugula erreproduzituko 1980ko hamarkadan izan genituen eztabaidak. Alde batetik, egun gehiago dakigu orain hogeitau urte baino; bestaldetik, euskal idazleok ondo ezagutzen dugu elkar eta denbora izan dugu ikusteko bakoitzaren ibilbidea (eta lerroa ez da beti zuzena izan). Orokorki mintza ezin daitekeen arren, diskurtso aurrerazalea zuten batzuek ez dute maila bereko praxia burutu. Eta, alderantziz, etikaren ordeztetik hutsa aldarrikatzen zuten zenbaitek, jarrera etikoa erakutsi dute urtetan zehar, koherenteagoa aurrekoekin konparatuz.

Esana dugu beste nonbait euskal literaturgintzan gure lizarra-garazi txikia bizi izan genuela politikariek berea sortu baino bi urte lehenago. Barealdia ezagutu genuen urtetan liskarretan aritu ondoren. Herri honen dinamika politiko zoroak, ordea, berriz bereiztu zituen jarrerak, zaila baita gaurkotetasunak eskatzen duen behalakotasunaren aurrean ez definitzea. Etengabe behartzen gaituzte argazkian kokatzen, eta mugimendua geldiezina denez, Iturralderen euliei bezala gertatzen zaigu: ez gara beti argazki berean agertzen.

Egunkaria-ren itxierak eta kanpotiko eraso neurri ga-beek batasun irudia sorrarazi dute berriz literaturgintzan, kolektiboa definitzeko modu erabatekoena etsaia identifikatzea baita. Baina denak ez gara berdinak, zorionez. Eta ondo dago gure artean zenbait termino, hitz eta kontzeptu definitzea. Eskaera bakarra egingo nuke, egiterik baneuka: edozein dela ere egiten den kritika, ez dadila izan «ad hominem», pertsona kritikatzuz beraren ideiei erantzuten ahalegindu ordez. Eta areago. Kritikak ez daitezela izan «ad mulierem», emakume izate hutsagatik. Hori ere ezagutu baitugu, misoginiaren hamabigarren aurpegian. ¶